

## **TELEMATIKA-GELAK ERABILTZEKO ARAUAK**

### **Helburuak:**

1. Telematika-gela ez da jolaserako gela bat. Bere helburua zigoitiar guztiei hainbat aukera ematea da: heziketa, lana, ikerketa edo kudeaketa-lanak egiteko edo izapide telematikoak egiteko erabili daiteke. Beti ere, ondorengo helburuekin baldin bada:

- ◆ Erabiltzaileak teknologia berriak erabiltzen hastea, edo erabilera hori hobetzea.
- ◆ Auto-ikaskuntza bidezko programen bidez ikasketa-lanak erraztea.
- ◆ Ikasitakoa erabili eta praktikan jartzea, ekipamendu informatikoek dituzten programak eta gailuak erabiliz.

### **Erabiltzaileak:**

1. **14 urtetik beherakoek** ekipamendu informatikoak erabili ahal izango dituzte heldu batek lagunduta eta zainduta joaten baldin badira. 16 urtetik gorakoak inork lagundu gabe etorri ahal izango dira.

### **Erabilera:**

1. Erabiltzaileek ekipamendu bakoitza erabiltzeko izango duten denbora-tartea zerbitzua kudeatzeko ardura duten langileek erabakiko dute, une bakoitzeko baldintzak kontuan hartuta. Erabiltzaile bakoitzak izango duen **gehieneko denbora-tartea 60 minutukoa izango da.**

2. **Ekipamenduak erabiltzeko lehentasuna** izango dute honakoa egin behar dutenek:

**1º. Auto-ikaskuntzako programak**

**2º. Eskolako lanak, unibertsitatekoak, ikerketa-lanak, lan mundukoak...**

3. **Debekatuta dago jolastea, txateatzea, edo messenger-a, facebook-a, twitter-a edo tuentia erabiltzea.**

4. Debekatuta dago eduki sexuala, xenofoboa edo arrazista duten web orrietara sartzea. Baita legea haustera edo indarkeria erabiltzera bultzatzen dutenak ere, edo indarrean dagoen legedia hausten dutenak ere.

5. Debekatuta dago ekipamenduak erabiltzea legeak zigortutako jarduerak egiteko, edo zerbitzuaren arduradunen ustez gainontzeko erabiltzaileentzako ezegokiak diren jarduerak egiteko.

6. Dohakotasunaren gehiegizko erabilera ekiditeko, **debekatuta dago erabiltzaileko eta eguneko 5 orri baino gehiago inprimatzea.**

### **Segurtasun-arauak:**

1. Instalatuta daudenetik aparte, programa informatikoak instalatu eta exekutatzea salbuesenez bakarrik egin ahal izango da, zerbitzuaren ardura duten langileen baimenarekin, eta beti ere hori egiteko lan- edo ikasketa-arrazoiak badaude. Era berean, **debekatuta dago erabiltzaileek ekarritako USB, CD edo DVDak ekipamenduetan sartzea.**

2. Izapideak edo gestioak egiteko sarbide-kodeak, sinadura elektronikoak, segurtasun-kodeak... sartzea ekidingo da. Era honetako gauzak KZ guneko ekipamenduetan egin ahal izango dira, informazio-jariorako sare seguru bat baitute.

3. Erabiltzaileek eduki pertsonaleko fitxategiak sortzen badituzte, eta gorde egin nahi badituzte, CD edo DVD garbi batean kopiatu beharko dituzte.

### **Jokabide arauak:**

1. Ekipamenduak gainontzeko erabiltzaileei enbarazurik egin gabe erabili beharko dira. Horretarako, **sakeleko telefonoak itzalita edo isilduta eduki beharko dira, eta gelatik kanpora erabili.**

2. Debekatuta dago gela barruan erretzea, jatea edo edatea.

3. Altzariak, ekipamendu informatikoak eta programa modu egokian erabili behar dira. Erabiltzaileek izango dute, Zigoitiko Udalaren aurrean, erabilera okerrak sortutako edozein kalteren gaineko erantzukizuna.

## **NORMAS DE FUNCIONAMIENTO DE LAS AULAS TELEMÁTICAS**

### **Objetivos:**

1. El aula telemática no se configura como un centro lúdico sino como un espacio que se pone a disposición de todos los zigoitianos y zigoitianas para realizar usos de tipo educativo, laboral, investigación, gestiones y trámites telemáticos y siempre con los siguientes objetivos:

- ◆ Que los usuarios se inicien o se perfeccionen en el uso de las nuevas tecnologías.
- ◆ Facilitar el aprendizaje a través de programas de auto-estudio.
- ◆ Usar y practicar lo aprendido mediante la utilización de los programas y dispositivos con los que cuentan los equipos informáticos.

### **Usuarios:**

1. Las personas **menores de 14 años** podrán hacer uso de los equipos informáticos siempre y cuando estén acompañados y bajo la supervisión de una persona adulta. A partir de 16 años el uso puede realizarse sin acompañamiento.

### **Utilización:**

1. La distribución del tiempo disponible en cada equipo entre los usuarios se realizará por el Personal encargado de la gestión del servicio en atención a las circunstancias de cada momento. Se establece un **tiempo máximo de utilización de 60 minutos por persona.**

2. **Será prioritaria la utilización** de los equipos en el orden siguiente **para** realizar:

**1º. Programas de auto-estudio**

**2º. Trabajos escolares, universitarios, de investigación, laborales,...**

3. **No se permite jugar, chatear, utilizar el messenger, facebook, twitter y tuenti.**

4. Está prohibido el acceso a páginas web de contenido sexual, xenófobo o racista, que promuevan actos delictivos o inciten a la violencia y que incumplan la legislación vigente.

5. No se permitirá la utilización de los equipos informáticos para la realización de actividades penadas por la ley o que resulten, a juicio del personal responsable del servicio, inadecuadas o molestas al resto de usuarios.

6. Para evitar el abuso de la gratuidad, **no se permitirá imprimir más de 5 hojas por usuario y día.**

### **Normas de seguridad:**

1. La instalación y ejecución de programas informáticos distintos a los instalados sólo se permitirá de manera excepcional, con autorización del Personal responsable del servicio y siempre que existan razones didácticas o laborales que lo justifiquen. Asimismo, **no se permite la introducción de memorias USB, CDs y DVDs aportadas por los usuarios en los equipos.**

2. Se evitará la introducción de claves de acceso, firmas electrónicas, claves de seguridad,... en estos equipos para realizar gestiones o trámites. Éstos se podrán realizar en los equipos del KZ gunea que cuentan con una red segura de transmisión de información.

3. Si los usuarios crean ficheros de carácter personal que deseen conservar, tendrán que copiarlos en un CD o DVD virgen, de su propiedad.

### **Normas de comportamiento:**

1. Los equipos se utilizarán sin causar molestias al resto de usuarios. Para ello, **los teléfonos móviles se mantendrán apagados o en silencio y su uso se realizará fuera del aula.**

2. No se permite fumar, comer ni beber en el aula.

3. El mobiliario, equipos informáticos y programas deben ser utilizados adecuadamente. Los usuarios responderán, frente al Ayuntamiento de Zigoitia, de cualquier desperfecto que ocasionen por un uso indebido o con mala fé.